


Euskal AEko industria-prezioak % 0,7 jaitsi dira 2025eko martxoan, aurreko hilabetearekin alderatuta

2024ko martxoarekin alderatuta, industria-prezioek % 1,7ko igoera izan dute

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,7 jaitsi dira 2025eko martxoan, aurreko hilabetearekin alderatuta. Industria-prezioen azken hamabi hilabeteetako aldakuntza jasotzen duen martxoko urtetik urterako tasa % 1,7 igo da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten duenez, 2025eko martxoan beren prezioetan aurreko hilabetearekin alderatuta jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 6,0ko jaitsiera) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,7ko jaitsiera) izan dira. Aldiz, prezioetan hiletik hilerako igoerarik handienak izan dituzten sektoreak *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 9,6) eta *Industria kimikoa* (% 0,9) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, 2025eko otsailarekin alderatuta *Energiaren* prezioak % 5,3 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasunen* prezioak, berriz, % 0,4, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 0,1eko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 0,5eko jaitsieraren ondorioz. Bestalde, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,8 igo dira, eta *Bitarteko ondasunen* prezioek, berriz, egonkor jarraitu dute.

Urtetik urtera, 2025eko martxoa 2024ko martxoarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan gertatu dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 28,8) eta *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 11,4). Aldiz, *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* adarreko prezioek % 13,6ko jaitsiera izan dute urtetik urtera.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Martxoa 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	114,2	-0,7	1,7
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	135,2	-0,7	0,4
Manufaktura-industria	116,8	-0,5	0,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	126,8	0,2	2,1
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	110,2	-1,1	2,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	123,0	-1,1	1,8
Kokeak eta petrolio finitzen	115,5	-6,0	-13,6
Industria kimikoa	131,6	0,9	5,6
Botiken fabrikazioa	109,9	0,0	1,7
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	117,2	0,0	0,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	113,3	0,0	2,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	123,4	9,6	11,4
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	116,9	0,0	3,2
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	113,6	-0,8	0,7
Garraioko materialen fabrikazioa	116,2	0,8	3,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	118,0	0,6	2,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	84,5	-4,7	28,8
Ura	127,9	0,6	4,2
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	122,0	-0,4	2,1
Kontsumoondasun iraunkorrak	115,7	0,1	3,3
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	123,7	-0,5	1,8
Ekipa-ondasunak	116,0	0,8	3,1
Bitarteko ondasunak	116,6	0,0	1,8
Energia	102,1	-5,3	-1,1

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hila (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Apirilaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera sailkatutako ondasun-talde handien prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da *Ekipa-ondasunen* kasuan (% 3,1eko igoera) eta *Bitarteko ondasunen* kasuan (% 1,8ko igoera). *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 2,1eko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 3,3ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 1,8ko igoeraren ondorioz. Azkenik, *Energiaren* prezioek % 1,1eko jaitsiera izan dute urtetik urtera.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **86,99ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62